

EUSKAL SINDIKALISMOAREN AROA

Sostengu oso handiarekin martxan jarri dira ELA eta LAB. Bat datoz: egungo markoan «prekarizazioak ez du etenik»

Euskal sindikatuek beti izan dute paper aktiboa lan munduan eta, hortik harago, lan munduaren periferian hainbat eremu eta esku-bideren defentsan: giza esku-bideak, zerbitzu publikoak, ingurumena... Ikuspegi feminista ere gero eta presenteago dago sindikatuen eguneroko jardunetan eta ingurura begiratzeko moduan. Erakundeok ez dira langileek lan munduan dituzten arazoez soilik kezkatzen, langileen ordezkari gisa badute zer esan langileen bizitzaren inguruan. Horretatik asko dago 2017 honetan sindikalismoak Euskal Herrian utzi duen kronikan. Testuinguru horretan, bi sindikatu nagusiek, ELAk eta LABek, bide orria berritu dute aurten, egin dituzten kongresuetan.

Biltzar horiek agintean dauden batzordeen ordezkariak berretsi eta berritu dituzte. ELAren kasuan, Adolfo Txiki Muñoz berretsi dute sindikatuko idazkari nagusi gisa, baita Batzorde Exekutiboko zenbait kide berritu ere. LABen aurpegi berria ageri da idazkaritza nagusiaren arduran, Garbiñe Aranbururena. Batean zein bestean, ibilbide berria babesten duen estrategiak eta horren buruan dauden ordezkariak sostengu zabala izan dute.

LABen kongresua izan zen lehena, maiatz aldean, Gasteizen. Garbiñe Aranburuk Ainhoa Etxaideri lekukoa hartu zion botoen %91,5ekin, Rafa Diez Usabiaga sindikatuko au-

 **EKONOMIA** / Nerea GOTI

Euskal sindikatu nagusiek biltzarrak egin dituzte aurten, aro berri bati ekiteko. Erakundeok, euren arteko ezberdintasunen gainetik, analisisian bat datoz: prekarizazioak ez du etenik eta gero eta handiagoak dira desoreka sozialak. Euskal esparrua eraikitzeko prest azaldu dira, ezkerreko eragileekin batera.



Garbiñe Aranburu, LABeko nazio batzordeko gainontzeko ordezkariekin, sindikatuaren azken kongresuan.
Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

rreko idazkari nagusia oraindik kartzelan zegoela. Hark El Duesoko espetxeko ziega bate-tik bidalitako gutunaren irakurketarekin abiatu zen biltzarrak. Naike Diez bere semeak irakurri zuen mezuan hau zioen: «Klaseen arteko borroka ez da enpresa barruan amaitzen; sindikatuek kontrabotere izan behar dute».

Biltzarkideek aho batez onartutako balantzearen ondoan, aurrera begirako lan-il-

doa marraztu zuen Aranburuk, mobilizazioaren bidez «patronalaren boterea mugatzeko» unea dela esanda. Bide horretan, ELAren aliantzaren garrantzia defendatu zuen «eroso dagoen patronal hantuste eta oldarkorrari aurre egiteko», legeek «botere absolutua» ematen baitiote EAJ, PP, UPN, PSE eta PSNren laguntzarekin. Gauzak horrela, idazkari nagusi berriak onartu zuen politikan eragin

nahi dutela, eta argi utzi zuen aldaketa soziala lortzeko ezinbestean burujabetza prozesu bat martxan jarri beharra dagoela. Etxaidek ere utzi zuen esana: «Aldaketa sozialak independentziarekin soilik lor daitezke».

BIZITZA DUINAREN ALDE ERAGIN

LABen bilkuratik hilabetera, ELAk Biltzar Konfederala egin zuen Bilbon. Botoen %87,5ekin Adolfo Txiki Muñoz berretsi zuten biltzarkideek idazkari nagusiaren arduran, eta mezua bota zien botere politiko eta ekonomikoei: «ELA ez da inoiz isilduko». Hitzok proiektio handikoak ziren, kontuan hartuta EAJk azkenaldian ELArekiko duen diskurtsoa, sindikatuak politikan duen eragina eta EAJ-PSE gobernuenganako kritikak deuseztatu nahi duena.

Muñozen erantzuna argia bezain zehatza izan da: militantziak agintzen du ELAn eta horren babes zabala du Batzorde Exekutiboak, ez «botere ekonomikoak edo politikoak». «Dena da politika, indiferente izatea ere politika egitea da», gaineratu du, eta defenditu du herritarrek eta gizarte eragileek politikaz hitz egin behar dutela. «Kontrabotereko sindikatua ez bagara, zer izan gaitezke?» galdera botata, erantsi du helburua «langileria defendatzea» dela «pertsonek bizitza duina izan dadin».

LABekin bat dator ELA estatus politiko bat behar dela esatean, eta gaineratu du prozesu horrek «gizarte eredu traxio-ardatz izan behar duela». «Agintzen dutenak ez dira hautatzen ditugunak eta guk agintzen dutenak hautatu



Txiki Muñoz, azken kongresuan, Bizkaiko zaharren egoitzetako langile batekin.
Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

nahi ditugu», esan du Txiki Muñozek.

ESTATUS BERRIRAKO PROPOSAMENA

Zentralaren XIV. Biltzarrak une berezi batean egin zen, Bizkaiko zaharren egoitzetako langileen greba luze baten erdian. Hilabete batzuk beranduago helduko zen akordioa eta grebaren amaiera, baina lan gatazka luze hark agerian utzi zituen hiru kontu: Bizkaian hirugarren adineko herritarrei ematen zaien atentzio kaskarra, enpresa pribatuen irabazi handiak eta Foru Gobernuak zerbitzu publikoaren defentsan zeren mesedetan joka-

tzen duen. Eztabaida izan zen eragile batzuek bultzatuta, baina arazoan sakondu barik Unai Rementeria Guber- nuak gogor jo zuen ELAren kontra, kritikak isildu nahian, ELAri manipulatzaren aritza aurpegiratu.

LABekin aliantza batera hel- tzea euskal eremuan «errebulsiboa» izan daitekeela esan ondoren, hainbatetan agertu dira batera. Sindikatu biek al- debakarreko burujabetza pro- zesu baten aldeko adierazpena kaleratu dute duela ez asko, al- daketa ekonomiko eta soziala lortzeko bidean. Beste adibide bat ostalaritzaren hitzarmena- ren inguruan gertatu da: Auzi- tegiak indargabetu egin du euskal sindikatu biek Confe- baskekin sinatutako akordioa, CCOOk eta UGTk egindako es- kaerari erantzunez. ELAk eta LABek gogor kritikatu dute Es- tatuko hitzarmenak baldintza okerragoak dituela; bertoko markoa defenditu eta Estatu- ko sindikatu euren interesen arabera jokatzaren dutela lepo- ratu diete.

Burujabetza prozesua abiatzeko konpromisoa hartu dute ELAk eta LABek eta bide horretan «ezkerreko eragile politiko, sindikal eta sozialei» eskua luzatu diete.

«Herri bat gara eta euskal herritarrok dugun erabakitze eskubidea aitortu behar da. Enplegu eta babes sozialerako gaitan ahalmen legegile osoa behar» dela azaldu dute.